

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko uztailak 5 · 1320 zenbakia

AMAÑAKO JAIAK TXUPINAZOAREN ZAIN

MERKEALDIA

2 MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Errebal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.
Garajea • Gimnasioa
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ra
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK

* Kontsumotuko lege-oinarria

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com

amañako jaiak UZTAILAK 5-6-7-12

Larragest
INMOBILIARIA •


Amañako

AMAHAKO JAIAK 2024
KONTZERTU ITZELA
MIKI PANDEJICA +
Xibcroots

AMAHAKO JAIAK 2024
MUS
TKAPELKETA
PLUS RELAXING
200 de Zuzeneko, 2000 de
200 de Zuzeneko, 2000 de

AMAHAKO JAIAK 2024
KONTZERTU ITZELA
MIKI PANDEJICA +
Xibcroots

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Nerea Ariznabarretak Etxepare saria irabazi du Mamuki album ilustratuari esker. Ipuin-kontalari eta aktore eibartarra oso pozik agertu da lorpenaren aurrean eta udazkenean argia ikusiko duen albumari buruz jardun dugu berarekin.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Rokodromoa itxi eta bapo: horra hor soluzioa!

Maiatzean Eibarko Udalak kiroldegiko rokodromo nagusia itxi zuen, inongo azalpenik eman gabe. Rokodromo hori Patxi Usobiagak munduko txapeldun izateko erabilitako instalazioa izan zen; egun Eibarko eskalatazaila gehienok erabiltzen dugun gune nagusia.

Kiroldegiko erabiltzaileon artean jakina da, urteetako kudeaketa txarraren ondorioz, bere egungo egoera ez dela batere ona. Mantente lan faltak, inbertsio ezak eta arduragabekeriak Eibarko zenbait instalazio egoera oso dekadentean gelditzea ekarri du, rokodromoa tarteko. Izan ere, Eibarko haur eta helduok eskualdeko rokodromoetara joan behar izaten gara ikastaroak jaso, eman eta kirola praktikatzera.

Aipatu bezala, urteak dira rokodromoak ez duela inongo mantentze lanik jaso: koltxonetak ustelduta egoteaz gain, zati batzuetan haien falta dago eta horma eta presen egoera tamalgarria da. Eibarko eskalatazailak urteak daramatza lanean rokodromoko baldintzak hobetzeko helburuarekin. Eta, hori gutxi ez balitz, Udalaren eta kiroldegia aldetik jasotako erantzuna eman zitekeen artean errazena izan da, hau da, rokodromoa ixtea. Ez dugu erabaki horren inguruan ez abisurik, ez azalpenik jaso; nahiz eta behin baino gehiagotan gu eurekin komunikatzen saiatu. Horregatik salatu nahi dugu publikoki udal-agintarietara gurekin izandako jarrera.

Gauzak horrela, Eibarko eskalatazailak instalazio duinak exijitzen ditugu gaur egun eskalatzeko dugunontzat eta eskalatzeko hastea nahi duen ororentzat. Horrez gain, Udalari rokodromoaren kudeaketan parte hartzeko dugun prestutasuna helarazi nahi diogu beste behin.

Eibarko Eskalatazailak

Hortik esanak



Euskal Herriaren urrats ekologikoa, momentu honetan, 3 da, eta horrek esan nahi du Euskal herrian bizi garenek daramagun bizimodu honi eusteko hiru Euskal Herri beharko genituzkeela. Hala ere, jasagarri izan nahi badugu, oso garrantzitsua da elikaduratik hastea. Eta, nondik hasi behar du batek, elikadurari dagokionez, jasagarri izateko? Urrutitik datozen produktuak jateari uzten. Bertakoa eta garaikoa kontsumitzean dago gakoa. Adibide bat: garai honetan, ekainean, sagar bat jaten duena astakeria bat egiten ari da; izan ere, pentsatu behar dugu sagar hori lehengo urteko irailean edo urrian jasotakoa dela, edo bestela, orain bi hilabete ekoizitakoa izan daitekeela, baina Txilen, Argentinan edo Hego Afrikan..

JAKOBA ERREKONDO, agronomoa eta paisajista

Gaur egun jaten dugunak, batzaz beste, aurretik ia 4.000 kilometro egin ditu gugana heldu arte. Guk produktu horiek erosten baditugu, horrek egingo du aurrera; eta euren zaporeak ez badira lehengoak, produktu berdin-berdinak izateaz aparte, hori izango da jango duguna. Guztiok amaituko dugu gauza bera jaten, zapore bera duena gainera. Horregatik, erostea ez da edonolako ekimen bat, ekimen politikoa baizik: erosten dudanaren arabera, produkzio-sistema bat indartu edo ahulduko dudalako. Gure erosketa-karroa, pazifikoki bada ere, borroka-karroa bihurtu behar dugu, mundu hobe eta jasagarriago baten aldekoa.

JOSE ESQUINAS, ingeniero agronomoa eta genetista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PAU-PAPU → Kotxea, automobila, ume hizkeran. "Han! papu-papu juan bihar dogu?".

PAPUTSAK → Papuak, matraileko gizona. "Txarrixari leztxe paputsak egin jakoz".

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jesus Ceballos Lafuente.** 82 urte. 2024-05-27.
- **Juan Antonio Magro Mena.** 84 urte. 2024-05-28.
- **Vicente Sanz Gomez.** 90 urte. 2024-05-30.
- **Txomin Azkonizaga Larrañaga.** 97 urte. 2024-05-30.

Jaiotakoak

- **Asael Kamalaudua Aketi.** 2024-06-03.
- **Wiam Moutaouakin Galvao.** 2024-05-11.



Aurtengo San Juan jaietan ere Eibarren egon zen Salvador, 40 urtez berarekin batera gaita edo dultzainarekin aritu den Juan Carlos Duñabeitiarekin batera. SILBIA HERNANDEZ

Salvador Martínez Lizarrako dultzaineroaren heriotzarekin suminduta

Albisteak ezustean harrapatu ditu Lizarrako herritarrak, baita urtero jaietan bisitatzen zituen beste herri guztietakoak ere, eta guztiz suminduta laga ditu urte askotan Salva gertutik ezagutzeko aukera izan duten eibartar asko eta asko.

Juan Carlos Duñabeitia Cardielekin batera, instrumentu horrekin Nafarroan aritzen zen bikote beterranoenetako bat osatzen zuen, eta Lizarrako Gaiteroetan bere lan profesional guztia gaitari eskaintzen zion bakarrenetakoa.

Salvadorrek oso gartzetatik erakutsi zuen musikarako berezko joera, eta gaitarekiko grina ere gaztetan piztu zitzaion. Berehala ikusi zen dultzainaren bertuosoa zela. Bizitzan zehar, bere teknika hobetzeaz gain, musika tradizionalaren

irakaskuntzan eta hedapenean ere aritu zen. Doinu tradizionalak ukitu garaikideekin uztartzeko zuen gaitasunagatik ezaguna, horri esker lortu zuen publiko anitza erakartzea, baita antzinako instrumentu horrekiko interesa berritzea ere.

Bere bizitzaren zatirik handiena, lau hamarkada gaitari eskaini dizkio Salvadorrek. 1981ean estreinatu zuen gaitero gisa, Juan Carlos Duñabeitia lagunarekin batera. Harrezkero *Gaiteros de Estella-Lizarrako Jaiak* izenarekin aritu izan dira, beti elkarrekin, eta disko ugari grabatu dituzte. 1983an Gaitako Udal Akademia sortu eta sustatu zuten, eta biak aritzen ziren irakasle gisa Julian Romano Musika Eskolan sartuta dagoen akademia horretan.

Ustekabean, bapatean hil zen domeka goizean Salvador Martínez Garate Lizarrako dultzaineroa, 67 urterekin. Bergaran, jaietan diana jotzera irten behar zuenean harrapatu zuen heriotzak. Orain dela egun batzuk Eibarren egon zen, beti bezala irrifartsu, hainbeste maite izan dituen Eibarko San Juan jaietan.

Lizarrako taldeek ohore guztiekin agurtu eta omendu zuten

Azken agurra Lizarrako San Juan Bautista elizan egin zitzaion, eta jendetza elkartu zen elizan zein elizaren kanpoaldean, gaiteroari omenaldia egiteko. Lizarrako erraldoien eta buruhandien konpartsak egin zion harrera gorpua zeraman automobilari, eta Ibai Ega dantza taldekoek pasilloa egin zioten. Malatxo txarangak ere bere omenez jo zuen. Denek eskertu nahi izan zioten Lizarrako gaitaren alde egindako lan handia. Hil baino egun bat lehenago, hilaren 29an, Salvadorrek bere urtebetetzea ospatu zuen, bere auzoko San Pedro jaiekin batera. Bertan, San Martin plazan, Martínez eta Duñabeitia Ibai Egaren dantzariekin batera aritu ziren. Azken agurra ematera joandakoen artean egon zen, baita ere, Lizarrako Vera Cruz Kofradia. Izan ere, Salvador danbor-joleen priorea ere izan zen, eta beti laguntzen zien Aste Santuan hirian egiten diren bi prozesioetan. Goian bego.



Ortzadarraren kolore guztiak LGTBIQ+ Harrotasunaren alde

Ekainaren 28a LGTBIQ+ kolekti-
boaren Sexu Askapenaren eta Ha-
rrotasunaren Nazioarteko Eguna

izan zela eta, Berdintasun Zerbi-
tzua-Andretxearen eskutik gaz-
teeentzako pankarta tailerra egin

zen goizean Untzagan, eta ondoren
LGTBIQ+ Bandera igo zuten, or-
dezkarri politikoen parte-hartzea
izan zuten ekitaldian. Gauean, be-
rriz, Asier Bilbaok eskaini zuten mu-
sika eta dantza ikuskizunak harrera
ezinhobea izan zuten (Argazkiak:
Eibarko Udala).



621 325 477
www.lekubox.com
info@lekubox.com

Gipuzkoa
hiribidea, 19
- ERMUA -



TRASTELEKUAK PARTIKULARRENTZAT
BILTEGIAK ENPRENTZAT

**LEKU
BOX**



Untzagako jubilatuen ere ondo baino hobeto ibili dira udalekuetan

Aurten ere ederto ibili dira *UdaJubiLekuetan* hau da, adinekoentzat egokitutako udalekuetan. Untzaga Gizarte Etxekoek antolatutako jardueran parte hartzerako animatu direnak domekan bueltatu ziren Eibarrera. Arduradunek esan digutenez, batez ere emakumezkoak egon dira, “oso animatua den gizon talde txiki batekin batera”. Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere Eibartik joandako jubilatuen taldea Errioxan, San Asensioko La Estrella monasterioan, egon da, eta han eman dituzten egunetan denetik egin dute: ibilbide kulturalak, horren ezaguna ez den Errioxako ondarea bertatik bertara ikusteko; inguruak ikustera joateko txangoak; udalekuetan ohikoak diren jokoak; mugikorrerako aplikazioak eta lehen sorospenetarako oinarriko jarraibideak ikasteko saioak; mindfulness saioak; baita jai-giroan oroimena zaintzeko saioak ere. Izan ere, zentroak adinekoen egokitutako udaleku-eredu bat finkatu du, dibertsioa eta aisia zaintza kognitiboarekin eta arreta kontzienteko teknikekin bateratuz, bizikidetzarekin eta ariketa fisikoarekin batera.





Orain dela 50 urte Aldatze ikastetxea laga zutela ederto ospatu dute

Aldatzen ikasitako hamabikoak, urterokoari jarraituta, elkarrekin egoteko aprobetxatu zuen beste behin. Oraingoan, gainera, Aldatzetik irten zirela 50 urte direnez, ospakizun berezia antolatu zuten, egun osoko txangoarekin. Ondo prestatutako egitarauari jarraituz, Sopuertara jo eta, lehenengo, Loitzagako dorre ospetsua bisitatu zuten, bertan Rolls-Royce autoen museoa ikusteko. Gero Avellanedan dagoen Enkarterrietako juntetxean izan ziren, eta tartea aurkitu zuten, baita ere, El Pobaleko burdin-olan izateko. Jakina, indarrak berreskuratzeko tartea ere aurkitu zuten, bazkari ederrarekin euren egunari ginga ipintzeko. Segi horrela!



Azitainen katekista izandakoen bazkaria

Saso batean Azitain parrokian hurrei katekesia irakasteaz arduratu ziren hainbat andra elkarrekin bazkaltzen egon ziren zapatuan, San Pedro egunean. Azken urteotako martxan, lagun talde polita batu zen, eta gustora aritu ziren garai bateko kontuak gogoratzen.



Laster ipiniko dute martxan Mekolako igogailu publiko berria

Udalak jakinarazi duenez, Mekolako igogailu publiko berria datozen egunetan jarriko da martxan. Proiektu hau "herria biziberritzea eta irisgarritasuna hobetzea" helburu gisa duen Eibarko Udalaren plan zabalago baten parte da, eta bertatik finantzatu eta koordinatu dituzte lanak. Igogailua Berdintasanaren pasealekutik abiatu eta Mekola kaleraino (Ardantzatik datorren bide-raino) doa. Altuna y Uria enpresa adjudikaziodunak egin ditu lanak, iazko otsailean egin zen lizitazio-prozesuaren ondoren, eta kostua 1.642.547 eurokoa izan da. Obrek 40 asteko iraupena izan dute.

San Kristobal ospatzeko jarduerak egingo dituzte Ipuruako bolatokian

"La no fiesta de San Cristobal" taldeak zenbait jarduera antolatu ditu uztailaren 13rako (zapatua). Guztiak Ipuruako Bolatokian izango dira: 10:00etatik 12:00etara haurrentzako jokoak, lehiaketak, marrazkiak, txutxeak eta sariak prestatu dituzte. Eta 13:00etatik 14:30era Gontés Rioja ardoaren dastaketa egingo da. Tiketak Bolera tabernan daude salgai.



seme-alabek itzultzaile lanak egin zituzten, bisita are dinamikoagoa eta dibertigarriagoa eginez. Bisitan zehar, gatza ekoizteko teknika tradizionala ikusi zuten, eta kideek prozesu horretan parte hartzeko aukera izan zuten. Irteera hauekin agurtu dute aurtengo ikasturtea Ongietorrikoek. Urritik aurrera berriz ere izango da egitasmoan izena emateko aukera.

Ikasturte amaierako irteerak egin dituzte Ongietorriko partaideek

Agurtu dute ikasturtea Ongietorri programako kideek, ondo agurtu ere! Sosola baserrira egin zuten lehenengo irteera. Baserri munduan murgildu ziren eta, besteak beste, ogia egiteko prozesua eza-gatzeko aukera izan zuten. Bisita amaitzerakoan, gainera, Sosolako produktu gozoak dastatu zituzten.

Joan den astean, berriz, Leintz Gatzagara egin zuten txangoa, bertako Gatz Museora. Oraingoan seme-alabekin batera egin zuten irteera, eta aukera paregabea izan zuten Leintz Gatzagako eta, oro har, Gipuzkoa eta Euskal Herriko ondare kulturalaren zati bat ezagutzeko. Bisita euskaraz izan zen, eta



Arrateko Bertso Afarirako sarrerak laster salgai

Datozen egunotan jarriko ditu salgai ...eta kitto! Euskara Elkarteak Arrateko Bertso Afariko sarrerak. Punta-puntako bertsolariak elkartuko dira aurten berriro Tiro Pitxoi jatetxean, Arrate bezperako bertso-afarian. Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia laukoteak jardungo du Jon Mikel Mujika gai-jartzai-learen esanetara. Sarrerak laster jarriko dira salgai ohiko lekuetan. Hurrengo asteetan izango duzue horren berri.



Eibarko Udalak eta Debegesak antolatzen duten Heldu! ekintzailletza-programaren hirugarren edizioa martxan da. Irailean hasiko da, eta parte hartu nahi dutenek uztailaren 22ra arte eman dezakete izena. Programaren helburua da enpresa-idea bat duten pertsoneri aholkularitza eta laguntza ematea. Formazio espezializatua, aholkularitza aditua eta tutoretza pertsonalizatua eskaintzen zaie. Ekintzailletza programari esker, bere enpresa martxan jarri du Ainhoa Martin eibartarrak, eta berarekin egon gara Heldu! hobeto ezagutzeko.



AINHOA MARTIN URZURIAGA • HELDU! programako ekintzailea

“Heldu!-k asko lagundu dit, batez ere nire negozio-idea zehazten”

Iaz HELDU! programan jardun ondoren, dagoeneko martxan daukazu B12 Consultoria Hipotecaria enpresa. Zer eskaintzen duzue?

B12 Consultoria Hipotecarian etxebizitza bat erosi nahi duten eta hipoteka kontratatzekeo prozesuan aholkularitza espezializatua behar duten norbanakoei edo familiei ematen diegu zerbitzua. Bezeroarentzako hipoteka-prozesua sinplifikatu nahi dugu, lasaitasuna eta, batez ere, konfiantza eskainiz, bere bizitzako finantza-erabaki garrantzitsuenetako batean. Bulegoa Errebalean daukagu, Coliseoaren ondoan.

Nola iritsi zara zure enpresa propioa sortzera? Zerk bultzatu zaitu?

20 urte baino gehiago eman ditut bankuen munduan finantza-aholkulari bezala, baina inflexio-une batera iritsi nintzen, non nire kabuz zerbait muntatu behar nuela erabaki nuen. Buruari bueltak ematen hasi nintzen, nire esperientziatik abiatuta zer negozio mota izan zitekeen pentsatuz. Mundu inmobiliarioa betidanik gustatu zait eta hipotekekin lotutako gaiak aski ezagunak dira niretzat. Bezeroen lekuan jarrita, ikusten nuen asko lagundu ahalko niela banketxea bilatzen, hipotekaren baldintzak negoziatzen eta notariotzara heldu arteko prozesu guztian. Hortik sortu zen B12 Consultoria Hipotecaria sortzeko erroka. Laburbilduz, bitartekari lana egiten dut bezeroa eta banketxearen artean. Prozesua errazten dut, bezeroari denbora aurreztuz, banketxeekin azterketa, izapidetak eta negoziazioak egiteaz arduratuz. Partikularrekin lan egitea gustatzen zait gehienbat, eta beti ez dira hipoteka berriak izaten; batzuetan lehendik dituzten hipotekak birnegoziatzen dira.

Zure enpresa sortzeko Heldu! ekintzailletza programan eman zenuen izena. Zertan lagundu dizute?

Heldu! programak pila bat lagundu dit, batez ere negozio-idea definitzeko orduan. Heldu!-ri zor diot dena.



Programa bete-betea da, eta ekintzaileek gure negozioa martxan jartzeko jasotzen dugun babesa oso inportantea da. Eibarko Udalak ahalegin ekonomiko handia egiten du herriko ekintzaileei laguntzeko, eta benetan eskertzekoa da. Ez nintzen puntu honetan egongo Debegesak Heldu! programaren bitartez eskainitako laguntzarik gabe. Programa oso ondo egituratuta dago, eta maila handiko adituen laguntza jasotzen dugu arlo askotan: marketina, alde finantzieroa, komunikazioa, ezagutzen gestioa... Etengabeko laguntza ematen dute. Heldu!ren ondoren beste programa bat dago, Ehundu, eta horretan ere parte hartu dut.

Zeintzuk dira izan dituzun arazo edo momentu kritikoenak?

Lege-eragozpen asko aurkitu ditut. Banco de Españañ alta eman behar izan dut eta hori oso konplikatu da; kreditu inmobiliarioen aholkularitzako teknikaria izateko titulua atera behar izan dut... Eta hori guztia egitea ekintzailletza programa hauek eman didaten laguntzari esker izan da. Beraz, ideia bat daukanari esango nioke ez izateko zalantzarik eta izena emateko. Oso eskertuta nago Eibarko Udalak eta Debegesak eman didaten laguntzarekin.



Alfa MIMtech, txikitasunean handitasuna aurkituz

la hutsetik hasi zuen ibilbidea Alfa MIMtech enpresak orain dela 20 urte eta, poliki-poliki, euren lantzen dituzten piezek duten altzairuaren bezalako sendotasuna lortu du gaur egun, estatuan sektoreko erreferente bihurtu arte. Horren erakusle da orain dela egun batzuk Toribio Echevarria sarietan jasotako Iñaki Goenaga aitortpena. Asier Agirrebeña gerenteak eta Ainara Askasibar zuzendari komertzialak egin digute harrera, eta, enpresaren historia eta bertan egiten dutena azaltzeaz gain, lantegia erakutsi digute.

Agirrebeña eta Askasibar oso pozik agertu dira Iñaki Goenaga saria jasotzeagatik. “Hunkigarria izan da”, diosku bigarrenak. “Orain dela lau urte Alfak sari berbera jaso zuen bere mendeurrenean, eta aurten Alfa MIMtech-ek jasotzea sorpresa izan da, baina momentu berezian etorri da, 20 urte bete ditugulako”, zehazten du Agirrebeñak.

Alfa MIMtech-ek Alfa Microfusión-en spin-off bat bezala (produktu deribatu bat) hasi zuen ibilbidea. “Oso makina eta pertsona gutxirekin hasi ginen, eta ibilbidea nahiko gogorra izan da. Basamortua zeharkatzea bezala”, zuzendari komertzialaren berbetan. “Hasieran ez genuen bezerorik eta gutxinaka joan ginen lortzen. Oso teknologia berezia eta oso modernoa delako, baina ez oso ezaguna, eta horrek denbora bat eskatzen du”.

Europar erreferente

MIM (Metal Injection Moulding) termoplastikoen injekzioan malgutasuna eta produktibitatea, eta, aldi berean, pieza metalikoen prestazio mekanikoak eskaintzen dituen prozesua da. “Funtsean, altzairuzko pieza txikiak egiten ditugu, produktibitate handiarekin eta geometria zailekin. Hori lortzeko, gaur egun ez dago MIM baino teknologia hobea”, azaldu digu Agirrebeñak.

Labur azalduta, piezak egiteko honelako prozesua jarraitzen dute: “Altzairua, hauts forman, plastiko batekin nahasten dugu eta hor sortzen den materiala plastikozko injektoreetan erabili daiteke, moldeetan sartzeko. Moldeek piezen geometria izaten dute, eta, horrela, materialak forma hori hartzen du. Moldeetatik irteten diren piezek altzairua eta plastikoa izaten dute eta, plastikoa kentzeko, azidoa sartzten diegu. Horrela, tamaina bereko

piezak lortzen ditugu, baina plastiko barik. Pieza horiek oso hauskorrak direnez (hondarrezko gazteluak bezala), labean sartzen ditugu. Bertan piezak sinterizatu egiten dira, hau da, solidotu. Hori bai, tamaina txikiagoan iritetzen dira eta hor sartzen da horrelako gauzak egiteko jakintza. Azkenean, piezek ez dute ia porositaterik, eta horrek propietate mekaniko bikainak ematen dizkie”.

Euren jarduna hasi aurretik, Santanderreko enpresa batek teknologia berdina erabiltzen zuen. “Gaur egun enpresa biok gara Espainian teknologia hau garatzen dugunak”, gerenteak dioenez. Hori horrela izateko, gure inguruan dugun ekosistema industrial berebizikoa dela iruditzen zaio: “Industria eta metalurgia kultura handia dago hemen, eta hori berebizikoa da MIM teknologia garatzeko. Gainera, gure hornitzaileak bertakoak dira, eurekin oso harreman estua dugu, eta piezak amaitzeko prozesu batzuk egiteko baliabideak ere inguruan aurkitzen ditugu”.


Mundu osoko bezeroak dituzte, eta azken urteetan eskaera ugari jaso dituzte. Horrela, enpresak izan duen hazkundea handia izan da, ia-ia gehiegizkoa. “2021ean gure hazkundea azeleratuegia izan zen. Ia %100 hazi ginen eta hori ez da ona. Gero merkatua erregulatatu egiten delako eta edozein jaitsiera gogorra delako. Orain modu mailakatuan hazten saiatzen ari gara, urtero %15 inguru”, azaldu digu bikoteak.

Alfaren lekuko

Alfak herrian izan duen garrantzia aipatzea soberan dago eta, Grupo Alfa osatzen zuten beste enpresa guztiak saldu ondoren, gaur egun Alfa MIMtech da Alfaren barruan dagoen enpresa bakarra.

Hasieran bi lagunek osatzen zuten Alfa MIMtech, eta Alfa Microfusiónekin partekatzen zituzten baliabide asko. Gaur egun, oster, 29 langile daude plantillan, gehienak eibartarrak. “Gainera, eskuzko lana egiteko, Katea Legaiako 16 lagun ari dira gurekin”, zehazten du Agirrebeñak.

Enpresa Torrekuan dago, Alfako eraikinaren 3. solairuan; hazten ari badira ere, etorkizuna bertan ikusten dute Agirrebeñak eta Askasibarrek. “Gure etorkizuna Eibarren dago. Edifizioa Alfarena da eta, beste solairuak libre egonik, bertan hazteko aukera dugu”, azpimarratu digute.



Toribio Echevarria sarietan Iñaki Goenaga aitortpena jaso du Alfa MIMtech enpresak



Goian, Asier Agirrebeña eta Ainara Askasibar. Behean, Alfa MIMtech-eko langile batzuk eraikinaren aurrean. EKHI BELAR

“Gauza askok beldurra ematen digute ez ditugulako benetan ezagutzen”

NEREA ARIZNABARRETA • Ipuin-kontalaria eta aktorea



Mamuki lanarekin irabazi dute Maite Rosende ilustratzaileak eta Nerea Ariznabarreta aktore eta ipuin-kontalariak aurtengo Etxepare album ilustratuen saria. Bikotea Galtzagorri elkarteak antolatzen duen Bikoteka tailerrean elkartu ondoren abiatu zuten proiektua, beste 30 lanen artean Etxepare sarietan eurena aukeratu arte.

O hituta gaude Nerea Ariznabarreta ohol-tza gainean ikustera. Urteak daramatza aktore eta ipuin-kontalari bezala lanean, eta Mamuki albumarekin bere arteak beste esparru batzuk ere maisuki lantzen dituela erakutsi du. Irribarra ahotik kendu ezinda dago Etxepare saria jaso ondoren.

Zuretzat zer izan da Etxepare saria jasotzea?

Demaseko sorpresa izan da saria jasotzea, eta oso ona! Galtzagorri antolatzen duen Bikoteka tailerrean sartzeko zortea izan genuen eta, lana garatzen joan garen neurrian, Harkaitz Cano eta Aitziber Alonso bezalako gidariak izan ditugu alboan. Tailerrean zortzi bikote geunden eta besteen lanak oso onak ziren. Orduan, edonork irabazi dezakeela pentsatzen duzu. Batzuetan ez da gertatzen zure lanarekin oso seguru egotea eta besteen lanak hobekak direla iruditzen zaizu. Adibidez, ikastaroa egin bitartean Pamiela argitaletxeokoa etorri ziren hitzaldia ematera, eta autoedizioa nola egin galdetu nien. Izan ere, Etxepare saria beste norbaitek irabaziko zuela pentsatzen nuen, eta, gure proiektua polita geratzen ari zenez, autoedizioa nola egin pentsatzen hasi nintzen.

Beraz, orain bai ikusiko du argia zuen lanak, ezta?

Etxepare sariari esker Mamuki argitaratuko dugu Pamiela-Kalandraka argitaletxearekin. Urriaren erdialdean irtengo da. Udan albuma pixka bat doitu beharko dugu. Zerbait gomendio zituztela esan ziguten, albumari azken ukituak emateko, eta horretan ibiliko gara inprentara bidali aurretik. Tirada nahiko handia egingo dutela esan digute, 1.200 ale inguru.

Jendeak zuen albuma ikusteko gogoak duzu?

Bai, demaseko gogoak. Patxi Zubizarreta idazleak oso hitz politik eskaini zizkigun saria entregatu zigitenean. Oso artefaktu beteak zela esan zuen, erritmoa zuela, eta hitzek eta marrazkiek oso ondo egiten zutela bat. Azkenean, album ilustratua horretan datza. Lan handia izan da hitzak kentzea irudia dagoelako, edo hitzen bat gehitzea ez delako ulertzen. Epaimahaikideentzat hori oso garrantzitsua izan zen. Iaz, adibidez, saria hutsik geratu zen, oso ilustrazio eta testu onak izanda ere, ez zutelako elkarlan ona egiten.

Nola sortu zen Mamuki sortzeko ideia eta nola moldatu zarete Maite eta biok elkarlana egiteko?

Mariano Hurtado eta biok ipuin-kontaketa musikatuak egiten ditugu, eta Durangoko Berbaro elkarteak haurrei zuzendurik ipuin-kontaketa saioa egitea eskatu



Mamuki album ilustratuari esker Etxepare saria jaso du Nerea Ariznabarretak Maite Rosendekin batera. EKHI BELAR

zigunez, mamuen inguruko istorio bat asmatu genuen. Funtsean, mamu horrek katarroa zuen eta ezin zen Gau Beltzean atera. Ideia gustatu zitzaigun eta, Jokin Azpiazu eta Ibon Egaña lagunekin berbetan, Ibon haur literaturan aditua izanik, Bikoteka tailerrean izena ematera animatu gintuzten. Ikastaro horren bitartez, album ilustratuak egiten ikasi eta Etxepare sarietara maila batekin iristea bermatu zuten. Kontua zen ez genuela ilustratzailerik ezagutzen. Marianok Ainara Axi ezagutzen zuen, baina oso lanpetuta zegoen. Hori bai, Ainarak esan zigun gure ipuina nahiko naifa zela eta Maite Rosende aproposa ikusten zuela ilustrazioak egiteko. Egun gutxi geratzen ziren izena eman ahal izateko eta, Maite ezagutzen ez nuenez, tira, bakarrik aurkeztu nintzen Bikotekara, gero han bikotea jartzen dizutelako. Aukeratu ninduten eta, bikotea nor? Ba hara, Maite Rosende. Sorpresa polita izan zen. Ikastaroa hasi baino lehen elkar ezagutzeko gomendatu ziguten eta, berak Gilda elkartean lan egiten duenez, bertara joan nintzen. Mamuaren ideia asko gustatu zitzaion eta lanketa egiten hasi ginen. Lana txotxongi-
loekin egiteko prestatuta zegoenez, testu asko zuen eta

albumaren formatura egokitu beharra zegoen. Gero, Bikotekan buelta handiagoa eman genion Harkaitz eta Aitziberren laguntzarekin, baita beste lankideekin ere, eta proiektua aldatzen joan zen. Mamuki izenburua jarri genion, ilustrazioak egin genituen, bukaera eman genion eta emaitza honetara iritsi gara. Lana maiatzean aurkeztu genuen.

Normalean eszenatoki gainean ikusi zaitugu, ipuin-kontalari zein aktore lanetan. Nola moldatu zara horrelako lan bat egiteko? Bazenuen eskarmenturik?

Idazten ibili izan naiz, ipuinak kontatzerako orduan moldaketak egiten ditudalako, baina egia da hau guztia berria izan dela niretzat. Izan ere, gorputzetik egiten dut lan lehenik, eta testua gero etortzen da. Egia da, hala ere, azken aldian Kepa Errastirekin ibili naizela lanean, eta berak testutik jotzen duela asko. Orduan, muskulua egiten ibili naiz, baina bai, niretzat arlo berria da. **Labur-labur, zer kontatu daiteke Mamuki albumari buruz?**

Mamuki katarroa duen mamua da. Gau Beltza da, eta, katarroa duenez, ezin da haurrak beldurtzera irten, eta demaseko pena du. Izan ere, sustoak ematea eta

BIDEOA



jasotzea ikaragarri gustatzen zaio. Lagunak bisitan joaten zaizkio, baina ez diote onik egiten. Izan ere, lagunak beldurraren munduko beste pertsonaiak dira (banpiroak, zonbiak...) eta ez dute sendatzeko baliabiderik. Umorea sortzen da hor. Maite artista hutsa da, eta oso marrazki naifak egin ditu. Barrea eragiten dute ilustrazioek. Gainera, dena Mamukiren gelan gertatzen da, ilustrazioz ilustrazio gelako elementuak aldatzen dira eta barne-jolasak daude txakurrarekin, beste istorio bat sortuz. Bestalde, hitzek errima dute. Testua oso laburra da, eta errimarekin jolasten dugu. Ipuin-kontaktetan asko igartzen dut errimak erabiliz umeei segituan harrapatzen edo errepikatzen dutela esandakoa.

Askotan esaten da umeei estimulu piloa dituztela inguruan, teknologia berrietan murgiltzen direla, baina oraindik ere ikusten dugu ipuinek liluratu egiten dituztela. Zein da ipuinek duten magia?

Irudimenaren esparrua hor dago, eta bizirik jarrai dezala, mesedez. Gauzak imajinatzen hasten zarenean, neuronetan konexio berriak egiten dira eta hori ona da. Estimulu onak dira gizakientzat. Gaur goizean (eguztenean) Bergaran izan gara ipuinak kontatzen. Ipuinetako bat otso eta txerri banaren ingurukoa zen (batak bestea jan nahi duela, eta abar), eta umeei parte hartzea eskatu dugu. Amaieran ume bat gerturatu zait eta zera galdetu dit: "Otsoa handia zen?". "Nik handia imajinatu dut, zuk?", erantzun diot. Ipuinekin sortzen diren munduak dira horiek. Ez dago gure arteko kontaktu zuzenik ezta hitza ordezkatzuko duen ezer. Pandemian ere hori ikusi genuen. Zenbateko beharra genuen besteekin elkartzeko, besteak entzuteko eta batak bestearekin gauzak kontatzeko? Hori ordezkazina da.

Mamukirekin beldurraren gaia lantzen duzue. Nola? Haurrekin edozertaz berba egitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, eurek edozertaz galdetzen dizute. Umoretik jo dugu beldurraren gaia lantzeko eta gai garrantzitsua dela iruditzen zaigu. "Ez izan beldurrik", "ez egin negarrik", esaten zaie umeei sarritan, eta emozioak erreprimitzea ez da kontu ona. Gero harrikos-



korrak geratzen zaizkigu, eta terapiak eta horrelakoak egin behar ditugu harrikoskor horiek leuntzeko. Hobe da horrelakoetaz hitz egitea. Beste ipuin kontaketa batean beldur ezberdinei buruz egiten dugu berba, eta haurrei esaten diet euren adinarekin beldur batzuk nituela eta gaur egun beste batzuk ditudala. Orduan, galdetzen diet eurek zein trikimailu erabiltzen duten beldurrari aurre egiteko, eta horren inguruan egiten dugu berba. Gainera, horretaz berba egitea gustatu egiten zaie. Mamuak gustatzen zaizkie, baita Gau Beltza ere. Beldurra pasatzea gustatzen zaie, baina jolasaren barruan dagoenean edo babestuta daudenean. Hor bado erakartzen gaituen zerbait. Horregatik joaten gara etxe misteriosuetara, eta pelikula beldurgarriak ikusi nahi izaten ditugu, besteak beste. Gauza askok beldurra ematen digute ez ditugulako benetan ezagutzen. Ezjakintasunak beldur handia ematen digu. Kontua da geldirik ez geratzea, beldurra paralizatu egiten gaituelako. Beldurra gainditzeko modu bat da beldurra ematen digun hori ezagun bihurtzea, gerturatzea. Mamukiren kasuan, bere lana haurrak beldurtzea da, baina katarroa du eta haurrek berarekin enpatizatzen dute. "Ze pena, Mamuki ezin da haurrak beldurtzera joan, ezin gaitu beldurtu", pentsa dezakete.

Ana Ramosen txupinazoak piztuko ditu Amañako jaiak

Amañako jaietako 46. edizioa aurreko barixakuan abiatu bazen ere, dorreetako tabernan jokatu zen mus-txapelketarekin, asteburu hau hartuko du bete-betean Eibarko auzo handiengan antolatu duten jai-egitarauak. Jai Batzordeak gaurtik domekara arte etenik gabeko ikuskizun jarraikortasuna prestatu du aurten ere, adin guztietakoen gustuak asetzeko asmoz.



Aurkezpenean omenduetako batzuk.

Aurreko barixakuan egin zuten jai-egitarauaren aurkezpena, Amañako Laboral Kutxako bulegoan. Ekitaldia, ohikoari jarraituz, jendez lepo egon zen, eta bertan hainbat errekonozimendu egiteko aprobe txatu zuten antolatzaileek. Han izan ziren aurten txupinazoa jaurtiko duen Ana Ramos amañatarra, ETB-ko kazetaria bera, eta denboraldi honetan erretiratu den Aitor Montero motorzale amañatarra ere bai. Bestalde, Eibartarrak futbol klubak urteotan egindako lana errekonozitu zuten (lehen taldea mailaz igo da) eta, horrekin batera, orain dela hilabete batzuk laga gintuen Urtzi Abantzabalegi gogoratu zuten.

Boikot eta Xiberoots

Gaur gaueko kontzertua izango da, urtero bezala, jaietako ekitaldi jendetsuenetakoa. Oraingoan luze joko du, gainera, 20:15ean hasiko baita gure herriko Mugi Panderoa taldeak eskainiko duen erromeria. Eta 11:00etatik aurrera Zuberoako Xiberoots reggae taldeak hartuko du lekukoa, azken txanda Madrilgo Boikot talde entzutetsuari lagatzeko; azken talde horren estilo musikal oso zabala da, punka, ska edota nu metal barnean hartuz.



Aurretik, dena dela, umeen danborradak izango du bere tartea, Ana Ramosen 19:00etan botako duen lehen aipatutako jaietako txupinazoaren ondoren.

Pailazoak eta Lisker

Biharkoari Amañako plazan goizez egingo duten Artisautza Azokak emango dio hasiera. Eta, jakina, ohiko herri-bazkaria ere ez da faltako, 14:30etik aurrera. Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoaren emankizuna 18:45ean abiatuko da eta, hori amaitzerakoan, parrilladaren txanda helduko da. Helduen danborradak eta Lisker taldearen eskuetik etorriko den berbenak agurtuko dute eguna.

Jubilatuendako bazkaria

Domeka eguerdian pintxoak egongo dira doan, eta 16:45ean gaztelu puzgarrien eta aparraren ordua iritsiko da. Txokolate-jana eta txorizo-ogitartekoak lagun, mariatxiak eskainiko dituen kallejonadak eta ondorengo kontzertuak osatuko dute egun horretakoa.

Hurrengo asteko barixakuan, bestalde, Amañako Jai Batzordeak hain berezkoa duen jubilatueendako bazkaria izango da Unzaga Plaza hotelean.



Punk-rocka eta reggaea Amañako jaietarako

Mugi Panderoak berotuko du gaur, 20:15etik aurrera, Amaña auzoa, gero etorriko dena ez baita nolana hikoia izango. Batetik, Xiberoots taldea izango dugu, Iparraldetik reggae doinuak ekarriz eta, gero, Boikot talde madrildarra. Euskal Herriko hainbatentzat ereserkiak diren abestiak sortu ditu ia 40 urte martxan daraman taldeak, eta amaiera bikaina emango dio gaurko gauari. Bihar, zapatu gaua girotzeko, Lisker talde eibartarra izango dugu.

Gaurko kontzertuak 23:00etan hasiko dira, Amañako plazan, eta Xiberoots igoko da lehendabizi eszenatoki gainera. Zuberoako taldeak 2018 hasieran kaleratu zuen bere lehen lana, 'Maule muffins' eta, harrezkero, reggae doinuak zabaldu ditu Euskal Herrian zehar. Berez, taldeak berak dioenez, "Euskal Herria eta bere hizkuntza dira Xiberoots taldearen izatearen abiapuntua. Hasierako ideia euskara hedatzea zen reggae musikaren bidez".

Sei lagunek osatzen dute taldea eta, diotenez, "zale bakoitzaren influentzia lagun", taldearen musika estiloa aldatzen joan da. Reggaeari soinu tradizionalak gehitu zizkieten: "beat elektro-popak, funky-transea, 70eko doinuak... hori guztia koherentziaz eta musikalki orekaturik".

Lehen diskoaren ondoren, bigarrena etorri zen, 2021ean. 'Honki Jina' du izenburua eta Berritza elkartearekin egindako koprodukzioaren emaitza izan zen. "Bigarren diskoan taldearen izaera ageri da musikalki ere: bada melankolia, engaiamendua...; zinez eklektikoa da", taldekideen berbetan. Lehen diskoa sortzeko egindako lanarekin alderatuz, Xiberootsekoek aipatu zuten lehenengorako hiru urtez ibili zirela lanean "baina disko bat egitea helburu eduki barik"; bigarren diskorako, ostera, bi urtez ibili ziren lanean eta bere kantuez soilik osatu zuten, bertsiorik gabe.

Bi diskoen artean, bestetik, zenbait gauza egin zituzten. Hala nola, 2018an Legorreggae Legorretako Reggae jaialdirako 'Lego' izeneko kantua aurkeztu zuten eta, urte berean, Basaburuako ikastolak 40 urte bete zituela ospatzeko 'e i a' kantua egin zuten. 2019an, Lapurdin burutu zen G7aren gailurraren kontrako 'Flash Ball' kantua sortu eta bideoklipa egin zuten. Eta 2021eko Herri Urrats festarako kantua ere prestatu

zuten, 'Baga Biga Boga' izenekoa, Andoni Basterre-txeak (Anestesia) lagundurik.

Boikot ginga jartzeko

Xiberootsen ondoren Boikot taldeak joko du Amañan. 40 urte inguruko ibilbidea egin eta gero, zer esan Madrilgo taldeari buruz? Euskal Herriko tabernetan hainbatetan entzun diren abestien sortzaileak dira, eta, rocka punkarekin eta ska doinuekin nahasturik, burua astintzeko eta dantza egiteko aukera emango dute.

Boikot 1987an sortu zen eta jatorrizko taldeko bi kidek jarraitzen dute oraindik: Juankarrek eta Alberto Plak. Beste taldekideak 'Kosta' Vazquez, Juan Carlos 'Grass' Zapata, Juan Antonio Rivas eta gure inguruan aski ezaguna den Xabi Arakama dira. Zegamarrak trikitixa jotzen du.

Boikotek 1990ean argitaratu zuen bere lehen diskoa: 'Los ojos de la calle'. Harrezkero, beste 13 album etorri dira, tartean 'Cría cuervos', 'La Ruta del Che' trilogia, 'De espaldas al mundo', eta azkena 'Balka acoustic' izan da. Gainera, bideoak ere argitaratu dituzte taldearen historia eta zuzenekoak erakutsiz.

Hasierako urteetan oihartzun nabarmena lortu zuten Espainian eta 'La Ruta del Che' trilogiarekin Latinoamerikara egin zuten salto. Harrezkero, sarritan izan dira Argentina, Kuba, Kolonia, Mexiko eta bestelako herrialdeetan kontzertuak eskaintzen. Baina ez hori bakarrik, Europan zehar ere euren doinuak entzun direlako. Horren erakusgarri da orain dela hilabete Polonian egon zirela 'ZEW sie budzi' jaialdian (Alemanian, Italian eta beste zenbait herrialdeetan ere izan dira), eta 2007an Mostarren (Bosnia) grabatu zutela 'Amaneció' diskoa hango hainbat musikarirekin.

Asian ere izan dira, Japonian zehazki. 2008an gertatu zen hori, eta bost kontzertu eskaini zituzten bertan. Gainera, aipatzekoa da Fuji Rock jaialdian hartu zutela parte Oasis, Weezer eta Franz Ferdinand bezalako taldeekin.

Doinuez gain, letrak eta abestietan igortzen dituzten mezuek berebiziko garrantzia dute Boikoten ibilbidean. Oso mezu sozialak jasotzen ditugu bere kantuen bitartez, eta horrela izan da ia 40 urteetan.



Gaur, Mugi Panderoak jo ondoren, Xiberoots eta Boikot taldeek kontzertua eskainiko dute



Goian, Boikot taldekoak. Behean, Xiberoots.



OSKAR ARANTZABAL IRAETA

Eibar Nafarroa da

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu eibartarrok ez garela ez gipuzkoar ez bizkaitar (edo, nahiago baduzue, ez bizkaitar eta ez gipuzkoar). Eta, hortaz, historiak zer dio? Zinez, nafarrak garela.

...eta kitto!-k gabon inguruan banatu zuen “Eibarko Historiako Alkate Jaun Txit Gorenak” deritzon 2024ko komertzio eta zerbitzuen gidan, 677 urteko hiribildua pasartean, halaxe diosku:

“Hiribildua sortu baino lehen, Ego ibarrean bazen burdinolen inguruan osatutako egitura administratibo bat, gaur egungo udalerriren eta are probintzien mugez gaindi.


*Gaztelako Alfontso XI.a erregeak foru gutuna eman zion 1346ko otsailaren 5ean **Villanueva de San Andres de Heybar** izenez. Bertan, agindu zuen lekua jendeztatzea, harresiz ixtea, dorrez hornitzea, eta abar. (...) XV. mendean, biztanleria bost halako eta gehiago handitu zuen, itsasoari begira egiten zuen industria-jardueraren epelean”.*

Horren aurretiko kontuak ordea bestelakoak dira. **Elena Barrena Osoro** historia katedradun eibartar peto-petoak, Arrate Kultur Elkarteak 1996an antolaturiko hitzaldian (osorik irakurtzeko: *“Eibar 1346-1996.Ekarpen historikoak” Eibarko Udala-Eusko Ikaskuntza, Lankidetzan bilduma, 1999*), besteak beste, zioskun San Andres elizaren inguruan bazela errotutako errealitate sozial bat, ziurrenik ordurako ehun urte zituena. Halatan, 1267an Gaztelako Alfontso X.ak Joan Lopez de Ganboa, Olasoko jaunari, *“monastegi-ko”* (sic) patroikontzesioa egin zion (1292an alkate izateraino). Bertan XII-XIII. mendeko San Pedro erromanikoaren taila, Santiago bidearen lekuko.

Burdingintzarekin batera, artzaintza komunalistak Urkoren bi magalak bereizten zituen: behekoa, *Markina de Yuso* (Mallabia, Markina), gerora bizkaitarra, eta goikoa, *Markina de Suso* (Eibar, Mendaro, Elgoibar, Soraluze), gerora gipuzkoarra. Labayruren etimologian esanguratsua da *“marra-egina”* edo *“muga txikia”* zena. Errege nafar eta gaztelarren arteko gatazka etengabeak Ingalaterrakoaren bitartekaritza behar izan zuen eta, horrela, 1179an gaur egun Errioxan kokatzen den Naiaran bakea sinatu zuten. Bitxia da mendebaldeko lurrek Araba osoa hartzen zutela, Itziartik Duran-

“ Herri batek bere memoria historikoa ezkutatu eta baztertzen duenean, kolonizatua dago (batez ere mentalki)”

goraino, inolako Gipuzkoa (edo Bizkaiarik) gabe. Gerora Aitzorrotzeko tenentzia osatuko zutenak (erdiguneko Ipuzcoa eta Hernani-Donostiarekin batera hirukotea osatuz, bibliografia lagungarria “*Gipuzkoako historia nafarra*”. Beñi Agirre, *Nabarralde 2017*). Ikus Antso Handiaren kontrolpeko lurrak hamaikagarren mendeko mapa honetan.



Iturria: “*Atlas histórico de Navarra*”.
Eneko del Castillo, Pamiela 2016

Hortik aurrerakoak ezagunak-edo zaizkigu: 1200. urtean Gasteizko setio odoltsua burutu zen Gaztelako Alfontso VIII.aren aginduetara (Garibayen “*adostutako*” hitzarmenaren teoriaren aurka), 1212an berriz (Antso VII.a Indartsuak Navas de Tolosako guda musulmanei irabazi ondoren) Durangaldea sortu Bizkaiaren baitan, areagotu zuena Markina de Yuso eta Markina de Susoren arteko bereizketa. Eta, konkista progresiboarekin jarraituz, Nafarroa Garaia 1512an eta Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoa 1620an. Gaurdainoko zatiketa administratiboa hirutan.

Ez hain ezaguna ordea **Nafarroako Antso VI. Jakintsua** “*Madagalzaga*” (gaurko Maltzaga) ize-

neko lurretara hurbildu zela **1165ean**, hiru urte lehenago Iruñeko Erresuma izatetik Nafarroakoa izatera pasa zuena. Don Celinos de Unzueta, bere lehengusu oinaztarrak, bazkari eta zezenketara gonbidatu zuen Irure auzora (ikus Irure Hamengua baserriko armarrria: haritz nabarra, zezen, zakur... eta katebegiak. Soraluzeko Gabolats kaleko Arregia dorretxean ere are tamaina handiagoan. Plaentxiatarrak ere nafarrak!). Simancas (Valladolid, Espainia) aldeko Artxibo Orokorrean dokumentatua (non eta *Sant Andres de Ehyndar* izenekoa gerta-uriko auzi bat ere dagoen) eta Ramiro Larrañagak aipatua bere “*Soraluze-Placencia de las Armas. Monografía histórica*” (1970) liburuan.



Iturria: Irure Hamengua baserriko armarrria. Sorapedia

Handik gutxira, Donostia (1180) eta Getaria (1190 inguru) fundatuko zituen errege nafarrak. Gerora etorriko ziren Azitaingo Untzueta jauregia (1193) eta Arrateko eliza (XIII. mendeko bigarren zatian), itsasgizonen babesle (Deba eta Mutriku gertukoena). Hemendik Azitaingo Jai Batzordeari gonbitea geure historian sakontzeko. Herri batek bere memoria historikoa ezkutatu eta baztertzen duenean, kolonizatua dago (batez ere mentalki). **Gora sanferminak!**

Udan ere mugidu!

Jarduera fisikoa sustatzeko Eibarko tokiko ekimena da MOGIDU. Jarduera fisikoari buruzko orientazio zerbitzua ematen du. Eibarko biztanle ororentzat pentsatuta dagoen zerbitzua da, DOAKOA, bakoitzaren gaitasun eta zailtasunetara egokituz bizi ohitura aktibo eta osasuntsuagoak sustatzeko. Orientatzaileak zure behar eta lehentasunak aintzat hartuz, lagundu egingo dizu. Zuretzat egokienak diren jarduerak identifikatuko ditu, programa bat proposatuko dizu eta elkarrekin jarritako helburuen betetze mailaren jarraipena egingo du. Ikasturtea amaitu da, baina urrian bueltatuko da zerbitzua. Bitartean, Kimberly Lopez de Arechaga orientatzaileak udan ere osasuntsu egoteko aholkuak eman dizkigu (mogidu@eibarkirola.eus / 688 724 174).

Kimberly Lopez de Arechaga • MUGIDU zerbitzuko orientatzailea



Aurtengo ikasturtea amaitu da. Uda sasoian sartuta gaude, eta agian ohitura osasuntsuak alde batera lagatzeko arriskua daukagu?

Ohitura osasuntsuak izan eta, batez ere, hauek mantentzea ez da lan makala; zerbitzutik pasa diren batzuk jada lortu duten arren, beste batzuk helburu hori lortzeko bidean dihardute gure laguntzarekin. Gehienak adinduak dira. Horietako askok, jarduera fisiko maila baxua izateaz gain, beste patologia edo limitazioen bat izaten dute, eta honek ikasturtean zehar landutakoari jarraipen bat ematea zailtzen du opor garaian.

Zer egin daiteke, aurrez-aurre egon ez arren, pertsona hauei laguntza bera eman eta akonpainamendua eskaintzen jarraitu ahal izateko, egindako lanarekin jarrai dezaten?

Argi dago zerbitzu bera eskaintzea ia ezinezkoa dela, baina behintzat udan jarraitu beharreko aholku zerrrenda bat ematea ezinbestekoa dela iruditzen zait, egin daitezkeen jarduera desberdinekin batera, udan aire zabalean jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera anitzagoa dela kontuan izanda.

Aholku hauek, zerbitzura datozenentzat zein beste edonorentzat, baliagarriak izan daitezkeela pentsatzen dut; beraz, adi datorrenarekin!



1. Atsedean hartzea ez da geldi egotearen sinonimo; askok uda-ko oporrak atsedena, hondartza, eguzkia eta denbora librearekin lotzen dituzte, baina atsedean hartzeko garaia den arren, osasuna ez da albo batera utzi behar, batez ere elikadura eta jarduera fisikoa. Hori horrela, aprobetxatu urtean zehar egin ez duzun jardueraren bat egiteko (hauetako askok egunerokotasunetik deskonektatzen ere lagun zaitzakete), edo jarraitu egiten zenuenarekin modu lasaigo batean, helburua egoera fisiko, mental zein emozionala mantentzea izanik, behar izanez gero (batez ere tenperatura altuetan egiten bada), jardueraren intentsitatea edo iraupena murriztuz, betiere ez baduzu beste kirol helburu zehatzik.

2. Udako tenperatura altuei eta hezetasunari aurre egiteko, saiatu jarduera fisikoa egiteko eguneko ordurik beroenak saihesten; unerik egokienak, goizean goiz, 12ak



Udako tenperatura altuei eta hezetasunari aurre egiteko, saiatu jarduera fisikoa egiteko eguneko ordurik beroenak saihesten.

>>> "Atsedean hartzea ez da geldi egotearen sinonimo"

baino lehenago, edo arratsaldean, seietatik aurrerako orduak.

Horrez gain, gorputza hidratatuta mantentzea inoiz baino garrantzitsuagoa izango da, tenperatura altuekin gorputzak gehiago izerditzen duelako, eta izerdiarekin ur eta gatz mineralak galtzen direlako. Horretarako, jarduera egin bitartean ura edatea komeni da (200 mililitro ur 20 minutuko, gutxi gorabehera), eta egunean zehar ur-eduki handia duten sasoiko elikagaiak



**INGENIARITZA
DUALAREN ESKOLA
ESCUELA DE
INGENIERIA DUAL**

Gure lantaldera batu nahi?
*Bidali zure proposamena uztailaren
18a baino lehen.*

Lan Eskaintza

INGENIARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA
 Irakatsi · Ikertu · Proiektuak garatu



 **IMH Campus**
Azkue auzoa, 1-20870
ELGOIBAR (Gipuzkoa)



>>> "Animatu udan jarduera fisikoa konpainian egitera! Familian, lagunekin, bikotearekin, edo antolatutako taldeetan"

(meloia, sandia, marrubiak, ana-na, tomatea, etab.) kontsumitzea gomendatzen da.

Izerdiarekin batera galdutako gatz mineralak berreskuratzeko edari isotonikoak edo sodioa, potasioa eta magnesioa dituzten elikagaiak, hala nola, esnea, arrautzak, banana eta mahatsak kontsumitzea ere ez legoke gaizki.

3. Eguzki izpiekiko esposizioa onuragarria izan daiteke neurri batean, baina uda garaian esposizio zuzenak kalte egin diezaguke, eta horren aurka eguzkitako krema ematea gomendatzen da, batez ere aurpegiari, arropa egokia janztea (kolore argiak, jantzi arin eta transpiragarriak, bisera eta eguzkitako betaurrekoak) eta, ahal izanez gero, jarduera itzala dagoen lekuetan gauzatzea.

4. Ahal den neurrian, aldentu jarduera fisiko saioak otorduetatik. Sabela bete berri, zailagoa da nagieria gainditzea eta, jakina, gure energia maila baxuagoa da, gorputza digestioaz arduratuko delako. Otorduren eta jarduera fisikoaren artean zenbat eta denbora gehiago igaro, jarduera zelularra eta muskularra orduan eta handiagoa izango da (hala, gantzak kontsumitzeko ere eraginkorragoa).

Aipatutako lau puntu horiek laburbilduz, jarduera fisikoa egiterako orduan kontuan izan beharreko faktore garrantzitsuenetarikoa hau jorratzeko hautatutako eguneko momentua da, tarterik egokiena goizean goiz delarik, gosaldururretik edo sabela ondo bete gabe eta eguzkiak asko berotu aurretik. Horrela, ur eta gatz mineral gutxiago galduko ditugu, eguzki izpiek eragin diezaguketuen kaltea saihestu, eguzkia irten orduko endorfinak (ongizatearen hormonak) askatu, eta metabolismoa bizkortu eta gantz kantitate handiagoa kontsumituko dugu, egunaz disfrutatze eta plan desberdinak egiteko energia eta denbora izateaz gain. Egunak aurrera egin ahala, zailagoa da entrenatzeko tarte bat aurkitzea.

5. Zaindu zure entrenamendu saioen estruktura; edozein saio sistemata metaboliko eta neuromus-

kularra ondo prestatzeko aktibazio atal bat izan beharko luke, 10-15 minutuko beroketa bat, ariketa desberdinak intentsitate eta erritmo baxu batean eginda (luzaketa dinamikoak, mugikortasun ariketak, edo korrika eta bizikleta bezalako jarduera ziklikoak, adibidez). Ondoren, atal nagusia, nahi den ariketa/jarduera, intentsitate, erritmo eta denbora konkretu batzuetan eginez (desberdina bakoitzaren beharren, helburuen eta nahien arabera), eta bukatzeko "lasaitasunerako buelta" atala, izenak dioen bezala, intentsitatea berriro murriztu eta sistema desberdinak egoera basal ("normal") batera itzultzeko tarteak. Azken atal honetan luzaketak sartzea garrantzitsua da lesioak prebenitzeko eta errekupeazioa bizkorrago izateko. Ostean, batez ere gorputza bero eta azala gorrituta badago, dutxa edo bainu hotz batek berpiztuko zaitu! Hori bai, erritmo kardiakoa bereziki kontrolatu behar dutenek tenperatura aldaketak zaindu beharko lituzkete, progresiboak izan daitezkeen eta ez bat-batekoak!

6. Azken aholku orokor moduan, **aztertu zure oporren kokalekua eta inguruak;** kirol instalakuntzak (gimnasioa, igerilekua, aire zabaleko osasun parkeak, bidegorriak edo kirola egiteko prestatutako bideak, etab.), hondartza, mendia... Horren arabera erabaki zer egin dezakezun, eta ez ahaztu horretarako beharko zenukeen arropa eta materiala maletan sartzeaz!

Bukatzeko, azken gomendio bat ematea gustatuko litzaidake: batez ere normalean kirola bakarka egiten dutenei, animatu udan jarduera fisikoa konpainian egitera! Familian, lagunekin, bikotearekin, edota antolatutako taldeetan.

Joseba Etxeberriaren taldeak eguenean hasiko du denboraldiaurrea

Hilaren 11n abiatuko dute SD Eibarko gizonzkoen lehen taldekoek denboraldiaurrea. Horrez gain, dagoeneko jokatu beharreko bi lagunarteko ere lotuta dituzte: hilaren 27an Santanderreko Racing taldearen aurka Saron Kantabriako herrian eguerdian jokatuko dutena eta abuztuaren 1ean Sestaoko Las Llanas-en, 19:00etan hasita, Athletic-en aurka jokatu beharrekoa.

Fitxaketei dagokienez, lehenengo biak egin ditu SD Eibarko zuzendaritzak, biak ere aurretik gure herriarekin lotura zutenak. Azken denboraldian SD Amorebietaren atea defenditu duen Jon Mikel Magunagoitia SD Eibarrera itzuliko da, sinatutako bi urterako kontratua-rekin. Jonmi edo Maguna bezala

ezagutzen den jokalaria orain dela sei urte etorri zen SD Eibarrera jubenetan jokatzeko; ondoren Amorebietara itzuli zen, berriro hona etorri eta Vitorian jokatu zuen eta, Zamorarekin beste denboraldi bat egin ondoren, Zornotzan izan da azken bi denboraldietan.

Jon Guruzeta erdilaria, bestalde, Sestao River-etik dator, azken denboraldian bi gol eta bederatzi asistentzia eman ondoren. Bilbao Athletic laga eta gero, Sestaorekin jokatu du 1. RFEF mailan. Bi denboraldirako sinatu duen Donostian jaiotako 24 urteko jokalariaiki erasora joateko joera du. Xabier Guruzeta futbolari ohi eibartarraren semea da eta Athletic-en jokatzeko duen aurrelariaren anai txikia.



Magunagoitia eta Guruzeta fitxaketak.

Asteburu borobila izan zuen Gartzia-Ruiz familiak Somoko triatloian



JAZ Triatloi Taldeko hirukoteak bikain jardun zuen Kantabriako Somo herrian jokatuako triatloian. Igerian 600 metro eginez hasi zen proba, jarraian bizikleta gainean 14 kilometroko ibilbidea osatzeko eta, amaitzeko, antxintxiketan 4 kilometroko distantzia eginez. Ugaitz Gartzia semea podiumetik segundo gutxitara geratu zen, jubencil mailako onena izateko. Cristina Ruiz ama seigarren sailkatu zen proban eta, horrela, podiumera igotzea lortu zuen, V2 mailako 3. postuan geratu baitzen. Eta Roberto Gartzia aita, saikapen nagusian 29. postuan helmugaratzeaz aparte, 6. geratu zen V2 mailan. Asteburu honetan JAZ-eko hainbat kidek Legutioko triatloian hartuko dute parte.

Ander Salaberria bosgarren Lekeitioko itsas-trabesian

Aurreko domekan Lekeition jokatuako Kilin Kala Zeharkaldia-ren 25. edizioan, Eibar Igerixaneko Ander Salaberriak bosgarren postua eskuratu zuen Master mailako proban. 1.800 metrokoa zen osatu beharreko distantzia, eta eibartarrak 32 minutu eta 27 segundo behar izan zituen helmugaratzeko.



Narbaiza eta Mujika podiumean laugarrenez VI. Rally Goilurraken

Gure herriko Kastinparro Racing taldeko Iñaki Narbaizak eta Egoitz Mujikak osatutako taldeak bigarren postua eskuratu zuen Goilurrak Rallyaren 6. edizioan. Mandubia, Gabiria, Endoia eta Azkarateko errepideetan jokatzeko den proba horretan, laugarrenez jarraian igo dira podiumera eibartarrak: bitan

gorenean izan ziren, lasterketak irabazita, iaz hirugarren tokian geratu ziren, eta oraingoan bigarren sailkatu dira. Denboraldi honetako sailkapen orokorrean Narbaiza hirugarren da une honetan, txapelketa amaitzeko hiru proben faltan; hurrengoa abuztuaren 10ean jokatuko da, Fiteron.



Eibarko bikotea, ezkerrean.

19 urteko Joel Erasus nagusitu zen squash-eko Eibar Hiria Sarian

Arrakastatsua izan zen Eibarko Hiria squash txapelketaren 20. edizioa, guztira 42 jokalaririk bildu zituen torneoan. Euskal Ligarako baliozkoa zenez, sailkapen horretako 12 onenen parte-hartzea ere

lortu zuen torneoak. Ciudad Deportiva Amaia-ko Joel Erasus izan zen onena, finalean Xabi Azaldegik Euskal Ligako liderra eta torneo-ko burua zenari hiru setak irabazi eta gero: 11-5, 11-7 eta 11-7 nagusi-

tu zen 19 urteko nafarra. Eibarko Klub Deportiboko Alberto Ferrerok hor goian izan zen beste behin, oraingoan laugarren postuarekin konformatu behar izan bazen ere, Iruñeko Oberena taldeko Luis Marinerekin galdu ondoren. Emakumezkoetan Iruñeko Irune Peinado izan zen onena, finalean Nagore Cirioni 11-3, 11-7 eta 11-7 irabazita. Benedikta Sestaoko taldekoak dira biak, eta Euskal Ligako lidergoa ere euren artean dago. Azkenik, juniorretan Daniel Khayat Ariasek irabazi zuen. Guztira 87 partida jokatu ziren.



Urki FT-k nesken infantil mailako taldea ateratzeko asmoa du

Urki FT-k, orain dela urte batzuk izan zuen bezala, nesken infantil mailako taldea ateratzeko asmoa du hurrengo denboraldirako. Hori

dela eta, klubetik dei egiten zaie interesatuta dauden 2012. urtean jaiotakoei klubarekin harremanetan jartzeko, talde berria osatzeko

bidean. Interesatuak 678395039 telefono zenbakira deitu dezakete, edo, bestela, clubdeportivourki@gmail.com helbidera jo dezakete.

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

106 xakelarik hartu zuten parte 38. Jose Mari Kruzeta Txapelketan

Euskal Herri osotik etorritako 21 taldetako eta Eibarko Klub Deportiboko jokalariekin osatutako beste bostekin jokatu zen aurreko zapa-

tuan Untzagan 38. Eibarko Hiria Xake Txapelketa. Txapelketa sistema suitzarra erabiliz jokatu zen, eta, 13 txanda jokatu ostean, Portuga-

leteko taldea izan zen garaile, 40,5 punturekin, Donostiako Gros Xake Taldea A (39,5) eta Gros Xake Taldea B-ren (35,5) aurretik. Deporren mendeurrena dela-eta, klubean xakean jokatu izan duten jokalariek gonbidatu zituzten, honako taldeak osatzeko: Eibar A (Olmo, Arana, X. Beorlegi eta A. Beorlegi); Eibar B (Bastida, Gomez, M. Hernandez, A. Aranzabal eta E. Garcia); Eibar C (Saenz, Y. Fernandez, Duran eta Añel); Eibar D (Freire, Garrido, Moya eta A. Garcia); eta Eibar E (D. Perez, Ibaibarriaga, Etxaburu, M. Rodriguez eta Uriarte).



Uztaileko azken zubirako irteera antolatu dute Pirinioetara

Hilaren 25etik 28rako zubirako Pirinioetarako irteera antolatu dute Eibarko Klub Deportiboko eta Elgoibarko Morkaiko mendizale elkarteok, oraingo honetan Carros de Foc ibilbide ezagunaren hegoaldeko zatia egiteko. 25ean, lehenengo egunean, Ponth deth Ressèc (Arties) parkinetik Ventosa i Calvell aterpera joango dira, bidean 2.692 metroko Tuc des Monges egiteko aukerarekin. 26an aterpe horretatik Estany Llong-ekora joango dira, 2.933 metroko Gran Tuc de Colomers bidean dutela. 27an beste aterpe horretatik Josep Maria Blanc hirugarren aterpera joango dira, bidean 2.905 metroko Tuc

de Saburó zain dutela. Eta azken egunean, hilaren 28an, aipatutako aterpe horretatik Esport-era joango dira, bidean 2.983 metroko Pic de Peguera igotzeko aukerarekin.

Irteeraren prezioa 272 eurokoa da bazkideen kasuan, eta 307koa bazkide ez direnentzat. Prezioan bidaia, aterpetxetako afaria, logela eta gosaria sartzen dira: "Norbere kontu izango dira bazkariak eta 25ean bidaian egingo den geldialdia, Les edo Viella inguruan". Antolatzaileek diotenez, "gailurrak bide beretik igo eta jaitsiko dira; beraz, ez da derrigorrezkoa goraino igotzea". Eguenean 9,2 edo 10,5 kilometro egingo dituzte, 6h00'



edo 6h30'ko iraupenarekin (gailurra egin barik edo eginez); bari-xakuan 9 edo 12 kilometro, 6h00' edo 7h30'ko iraupenarekin; zapa-tuan 17,3 edo 18,6 kilometro, 9h00' edo 10h00'eko iraupenarekin; eta domekan 16,5 edo 17,7 kilometro, 7h00' edo 7h40'ko iraupenarekin.



Izadi
LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



San Andres
Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Eibarko Musika Bandak denboraldiko azken kontzertua emango du gaur

Oporrak hasi aurretik, denboraldiko azken kontzertua emango du gaur Eibarko Musika Bandak, 20:30etik aurrera Toribio Etxebarria kalean (eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan egingo litzateke). Andoni Vazquez zuzendariak honakoa azaldu digu gaurko emanaldiaren inguruan: “Urtean zehar jo ditugun kantuen errepasoa egingo dugu. Gehien gustatu zaizkigunak eta kalerako aproposenak ikusten ditugunak joko ditugu. Besteak beste, Michael Jacksonen abesti baten moldaketa, Xavier Cugatena beste bat... Etxerako moduko kontzertua eskainiko dugu ikasturteari agur esateko, eta irailean itzuliko gara”.

Gaur da azken eguna Asier Errasti Film Laburren lehiaketan parte hartzeko

Gaur amaituko da Asier Errasti Film Laburren Jaialdian izena emateko epea. Lehiaketak bi atal ditu (fikzioa eta animazioa) eta sari garrantzitsuak daude. Lehen saria 700 eurokoa izango da, bigarren saria 500 eurokoa. Bestalde, euskarazko film laburrik onenak 700 euro eskuratuko ditu, baita animaziozko film laburrik onenak ere, eta azkenik Eibarko film labor onenari 200 euro emango dizkiote. Izen-ematea Eibarko Udalaren webgunearen bitartez egin behar da.



Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestraren emanaldia

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak (EIJO) hamar urte betetzen dituela eta, programa berezia prestatu dute, eta bihar Eibarren zuzenean entzun ahalko dugu, 20:00etan Untzagan hasiko den kontzertuan. Euskadiko kontserbatorioetako eta musika-eskoletako ikasleekin 2014an sortutako orkestrak big bandeko ohiko tinbreak eta euskal instrumentu autoktonoak (txistua, txalaparta, trikitixa eta alboka) nahasten dituen pliantilla dauka gaur egun, adituen arabera “jazzaren eta euskal folkloreaken etorkizuna” izango diren 14 eta 20 urte bitarteko 30 gaztek osatutakoa.



Bi argazki erakusketa ikus daitezke uztailean

Uztailean bi erakusketa ikusteko aukera izango da, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik. Depor tabernan 4 *Masteres FLAP* izenekoa dago ikusgai. Argazkilaritza Artearen Nazioarteko Federazioko Maisu titulua 2014an jaso zuten lau argazkilariren (Gràcia de la Hoz, Javier Fernandez Ferreras, Luis Alberto Frank eta Frederic Garrido Vilajuanak) lanekin. Eta Portalea jatetxean, berriz, Fernando Retolaza eibartarrak maiatzeko argazki-rallyan ateratako irudiak ipini dituzte ikusgai.



Domekara arte egongo da ikusgai ‘Karteletrak’

Markos Gimenoaren euskarazko palindromoetan oinarritutako kartelen erakusketa bisitatu daiteke Topalekuan. Besteak beste, Gernikako Euskal Museoa ikusgai egon den *Karteletrak* izenburuko erakusketa ikus daitezkeen karteletako batzuk Markosek berak diseinatu zituen, baina orain bere lagun asko eta dozenaka euskal artista elkartu dira Markosen palindromoak kartel formatuan ilustratzeko. Era berean, Esteban Montoriok diseinaturiko eta Joseba Sarrionandiak glosatutako bilduma jaso dute Markos Gimenoaren *101 letrakartel* liburuan. Erakusketa Arrate Kultur Elkartearen Ikus-entzuneke Astearen baitan antolatuta dute.



Debarreneko Orfeoia Leonen abestu du

Debarreneko Orfeoia Leonen aritu da kantuan, eta oso harrera ona egin diote. Jose Miguel Laskurain zuzendariak azaldu digunez, aurreko asteburuan joan ziren bidaian, Torneros de la Valderia izeneko herrian ospatu zituzten San Pedro jaietan abestera. Horrez gain, Astorgako eliza zaharrena den San Bartolomeu ere kantatu zuten. Batean zein bestean egindako harrekin pozarren itzuli dira.



Alex Davies taldeak Untzagan joko du eguenean

Datorren eguenean Alex Davies taldearen kontzertua hartuko du Untzagak, 20:00etatik aurrera. Alex Davies izeneko proiektua musikari eibartarraren konposizio-ikerketaren emaitza da. Izan ere, saxofoi-laukotea ardatz gisa duen talde honek eskaintzen duen ikusizunean, jazzaren, Europako musika klasiko tradizionalaren eta folkloreak eraginak ikus daitezke. Laukoteari atal erritmiko bat ere gehitzen zaio, kontrabaxu batek eta bateria batek osatua. Talde honen aurretik, hamaika proiektu eta taldeetan aritutakoa da Alex Davies: Parrapas erromeria taldean, Ustekabe txaranga, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran (EIJO), Slide eta Indabak taldeetan...



“Eibar 1960-1980: gozo eta mikatz” dokumentala online

“Eibar 1960-1980: gozo eta mikatz” dokumentala YouTubean ikusgai ipini du Ego Ibarra batzordeak: “Eibar-ko BHI eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleentzako pentsatua eta jende orori ere zuzendua, dokumental honek herriaren historiaren errebaso bat egin nahi du, ikasleen eskola-curriculumak kontuan hartuta, testuinguru jakin batean izandako gertaera jakin batzuk azalduz. Zailak izan ziren urte haiek, gorabehera eta gatazka handiko bi hamarkada, baina baita ilusioaren eta aldaketaren hamarkadak ere”.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6		3	5		
		4	8		
	5		1	9	
3	4				9
8					
		9			
7	3		6	2	4
				8	2
			4	3	6

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

6	7				
	9	4	8		
5	8		7		2
1	8	3	4		5
9			6		1
4			5	9	2
	5			6	1
			2	6	3
				5	2

Uztailak 5/11

BARIXAKUA 5

AMAÑAKO JAIAK

18:30 Umeen danborrada. Pieza batzuk joko dituzte Ego Gain gerontologia zentroaren aurrean.
19:00 Jaien hasierako txupinazioa, Ana Ramos ETBko kazetariaren eskutik.
19:15 Umeen danborrada. Amañako plaza.
20:15/23:00 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin.
23:00 Musika kontzertu itzela, Xiberoots eta Boikot taldeekin. Txosnan ogitarteko eta pintxo zerbitzua egongo da. Amaña.



MUSIKA

20:30 Cielito Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria.



ZAPATUA 6

AMAÑAKO JAIAK

10:00/14:00 Artisautza Azoka, Amañako plazan.
14:30 Herri-bazkaria: paella. Plazan bazkaltzen ez duenari ez zaio edaririk zerbitzatuko.
18:45 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emankizuna.
20:30 Parrillada: saiheskia, txorizoa, oilasko-hegalak...
20:30/22:30 Elektrotxaranga, parrillada girotzeko.
22:45 Berbenaren hasiera, Lisker taldearekin.
23:00 Helduen danborradaren irteera.
00:00 Danborradaren iritsiera Amañako plazara.
00:45 Berbena, Lisker taldearekin. Amaña.

MUSIKA

20:00 EIJO 2014-2024 - Euskadiko ikasleen Jazz orkestraren kontzertua. Untzaga.



DOMEKA 7

KALEJIRA

10:30 Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Amaña.




AMAÑAKO JAIAK

12:15 Txorizo-pintxoak, doan.
16:45 Gaztelu puzgarriak eta aparra, jolasteko.
19:00 Txokolate-jana, Eroskirekin elkarlanean.
19:00 Amaña es la Caña elkartearen sari-banaketa.
19:00 Txorizo-ogitartekoak salgai (euro bat).
19:30 Kallejonada, mariatxiarekin.
20:00 Kontzertua, mariatxiarekin.
21:30 Jaien amaiera. Amaña.

EGUENA 11

MUSIKA

20:00 Alex Davies-en kontzertua. Untzaga.



ERAKUSKETAK

Uztailaren 7ra arte:

- **"KARTELETRAK"**
Markos Gimenezoren palindromoetan oinarritutako kartel erakusketa (Topalekua).

Uztailaren 30era arte:

- **"NI NAIZ NAIZENA"**
argazki-erakusketa. (Andretxea).

Uztailaren 31ra arte:

- **"4 MASTERES FIAP"**. Gràcia de la Hoz, Javier Fernandez Ferreras, Luis Alberto Frank eta Fredericc Garrido Vilajuanaren argazkiak. (Depor taberna)
 - **"RALLY 2024 EKDAT"**. **Fernando Retolazaren argazkiak.** (Portalea jatetxea)

Urriaren 20ra arte:

- **"MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK"** (Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

SORALUZE

5ean (BARIXAKUA)

DANTZA

22:00 / Plaza Zaharra
 "Laila" dantza emanaldia, Ibarra Lurr taldearekin
6an (ZAPATUA)

KALEJIRA

12:00 / Herrigunean
 "San Fermin kalejira", herriko gaitero eta buruhandiekien

DEBA

6an (ZAPATUA)

IRTEERA GIDATUA

11:00 / Plaza Zaharrean
 "Santa Maria eliza", Alex Turrillasek gidatuta

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **6an:** 16:30 (2), 20:00, 22:30
- **7an:** 17:00, 20:00
- **8an:** 19:30

“En tierra de santos...”
AKZIOZKOA



2023/Irlanda/106'
Zuzendaria: Robert Lorenz
Aktoreak: Liam Neeson,
Kerry Condon, Jack Gleeson
Thriller/Intriga/70. urteak

2 ARETOA

- **6an:** 16:30 (1), 19:00, 22:00
- **7an:** 16:30, 20:00 (Antzokia)
- **8an:** 19:30 (Antzokia)

“Horizon. An America Saga”
WESTERN



2024/AEB/181'
Zuzendaria: Kevin Costner
Aktoreak: Kevin Costner, Sienna
Miller, Sam Worthington
Sezesio Gerra/Abenturak

ANTZOKIA

- **6an:** 17:00, 19:45, 22:30 (2)
- **7an:** 17:00, 20:00 (2 Aretoa)
- **8an:** 19:30 (2 Aretoa)

“Del revés 2 (Inside Out 2)”
ANIMAZIOA



2024/AEB/96'
Zuzendaria: Kelsey Mann
Nerabezaroa/Izotz-hockeya

 FUNEUSKADI Funeraria Mugica	 FUNERARIA MUGICA Funeraria
 TANATORIO EIBAR	 TANATORIO MUGICA
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Otaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
 Urkizu, 11 - solairuartera
688 62 76 89 publizitatea@etakitto.eus

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **PERU**, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Segi beti bezain zoriontsu, mundua kolorez betetzen dozulako! Zure famelixaren partez.



Zorionak, **TELMO!** Eguaztenian 2 urtetxo beteko dozuzelako. Patxo bat etxeko guztion eta, batez be, Juliaren partez.



Zorionak, **JOK!!** Hillaren 2xan, 44 urtetxo!! Zeruko izarrik poliitena eta zure pottotitak zorion haundixena opa deutsugu!! Etxeko disdira zara! Bihotz-bihotzez.



Zorionak, **JON!** Gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Ekainen partez.



Zorionak, **AUKAN**, ekaiñaren 30ian 4 urte bete zenduaz-eta!! Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Lurtxoren partez!!



Zorionak, tia **SILBIA** (uztaillaren 1ian 49 urte egin zenduaz-eta) eta **LUKEN** (datorren astelehenian, hillaren 8xan, 9 urte beteko dozuz). Ondo ondo ospatu!



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Vielhan (Baqueira). 75m². 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igogailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolas-guneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztail edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712.
- Emakume batek pisua hartuko luke alokairuan. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Emakume batek pisua hartuko luke errentan. 2/3 logelakoa. 607841549.
- Pisua alokagai Deban, udako hileetan eta irailerako. Argitsua. Igogailuarekin. 656723437.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631279124.
- Katuak zaintzen ditut uda honetan, berdin dio egunak, asteak... 674810717.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko: etxeak, lokalak, tabernak... 674810717.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632708954.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643711687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. 613304239.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pasiatzeko goizez. 679912841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientziarekin. 642855788.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 693741354. Irati.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko arratsalde. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. 624523413.

4.2. Langile bila

- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 699495279.
- Frantsea dakien zerbitzaria behar da Eibarko jatetxe baterako. 606848794 / jatetxeai-bar@outlook.es. 69945279.
- Ileapaintzailea behar da El-goibarko ileapaindegi batean. Jornada guztirako edo erdirako. 634261485.
- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 69945279.
- Kamarera/o behar da Eibarko Topa-Leku tabernan. 943558728. Bidali curriculum-a: lourdesburgos@hotmail.es
- Fisioterapeuta bat behar da Eibarko kontsulta batean. Euskera eta esperientzia baloratuko da. 699632248 watsapez edo ane_mendia@hotmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Gazteentzako/haurrentzako logelako altzariak emateko prest. 90 zm-ko ohe-egitura, oheburua, idazmahaia eta apalak. Erabilera-markekin, baina baldintza onargarrietan. 686058459. Leire.
- 90 zm-ko ohe-kabia oparitzen da. 943207506.



LUXUZKO ASTEBURUA GASTEIZEN ...eta kitto!-ren eskutik



**BOLETOAK
SALGAI**
kalean eta
honako
lekuetan:

eta kitto!

Sagardo eguneko SARIA Urriaren 26tik 27ra

• Sagardoko eguna + arrosa (urriaren 26tik 27ra)
• Sagardoko eguna + arrosa (urriaren 26tik 27ra)
• Sagardoko eguna + arrosa (urriaren 26tik 27ra)
• Sagardoko eguna + arrosa (urriaren 26tik 27ra)

Zozketa Sagardo Egunean egingo da, urriaren 5ean

Prezioa: 1€ Izk:

Zozketa Sagardo Egunean egingo da, urriaren 5ean

Babeslea:

INDUSTRIAS PAMPO
www.industriaspampo.com

- HOTEL SILKEN CIUDAD DE VITORIA (Gasteiz)
2 lagunentzako gau+armosua (urriaren 26tik 27ra)

- 2 lagunentzako afaria (menu berezia) Gasteizko EL PORTALON jatetxean (urriaren 26an)

- BISITA GIDATUA Santa Maria katedralera eta Andra Mari Zuriaren dorrera + Degustazio menua ANDERE jatetxean (urriaren 27an)

ISASI okindegia
ZABALETA okindegia
IZADI loradenda
UNTZAGA prentsa
MARIA OSPITXAL
KULTU taberna
BOLINTXO okindegia
MUGIKI harategia
OTEGUI harategia
ZUBI GAIN taberna
GURIDI taberna



zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea

